



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko otsailaren 14a

16. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/MOC-00006. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernu eta Nafarroako Gobernu premiatzen baitira babes dezaten EBk ingurumenaren arloko taldeei emandako dirulaguntza-kontratuak argitu eta ikertzea. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (3. or.).
- 11-25/MOC-00013. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak Elikadura Osasungarriaren Nafarroako Estrategia osatu dezan, populazioaren arriskuak desagerraraziko dituzten neurriak hartuta. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (4. or.).
- 11-25/MOC-00014. Mozioa, zeinaren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen baita Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua alda dezan 2011ko irailaren 7ko erreforma zuzentzeko eta zorraren nahiz horren interesen ordaintzari dagokionez berriro izan daitezen goi balioak askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa, zeinek Espainiako estatuaren zuzenbidearen izaera sozial eta demokratikoa osatzen baitute. Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztu du (6. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- 11-25/PES-00051. Galdera, tutoretzapeko zentroetan dagoen sei urtetik beheetiko haur-kopuruari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (8. or.).
- 11-25/PES-00052. Galdera, itunpeko irakaskuntzaren sektorearekin 2024-2026 aldirako sinatutako akordioari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (9. or.).
- 11-25/PES-00053. Galdera, Nafarroako Gobernu Irekiaren atarian euskara zuzen erabiltzeari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (10. or.).
- 11-25/PES-00054. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Ospitalez kanpoko Larrialdi Zerbitzuko anbulantzietako medikuek eta erizainek arrisku-osagarria jasotzeari uzteko arrazoiei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (12. or.).
- 11-25/PES-00055. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak biriketako minbizia hautemateko Cassandra proiektuan parte hartzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (12. or.).

- 11-25/PES-00056. Galdera, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean jasotako zenbait jarduketa betetzeko epeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (13. or.).
- 11-25/PES-00057. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko langileria-planari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (14. or.).
- 11-25/PES-00058. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioari eta Hezkuntza Departamentuko ikuskaritzari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (15. or.).
- 11-25/PES-00059. Galdera, Nasuvinsaren ekimenez Burlatan abiarazitako etxegabetze-prozedurei buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (16. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-25/ACOP-00001. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, zeinaren bidez salatu egiten baitu Estatu Batuetako Donald Trump presidentek Gazarentzat iragarritako plana (17. or.).
- 11-25/ELCO-00001. Nafar Komunitateen Kontseiluan Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen bi ordezkari eta horien ordezkioak izendatzea (17. or.).
- 11-24/ELCR-00002. Talde parlamentarioek ordezkariak izendatzea Nafarroa Markaren Mahairako (18. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00006. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira babes dezaten EBk ingurumenaren arloko taldeei emandako dirulaguntza-kontratuak argitu eta ikertzea

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira babes dezaten EBk ingurumenaren arloko taldeei emandako dirulaguntza-kontratuak argitu eta ikertzea.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira aldeztu dezaten EBk ingurumenaren aldeko taldeei emandako dirulaguntza-kontratuak argitu eta ikertzea.

Holandako *De Telegraaf* egunkariak ustezko ustelkeria-kasu bat salatu du: egunkariak dioenez, Europar Batasunak (EB), Klimaren Aldeko Ekintzako komisario ohia den Frans Timmermans sozialistaren zuzendaritzapean, isilpean finantzatu

omen ditu ingurumenaren arloko zenbait talde, Itun Berdearekin lotutako bere erreformak sustatzeko.

Artikuluaren diotenez, gutxienez EBren 700.000 euro erabili omen dira lobbyen jarduerak finantzatzeko, Bruselaren plan berdeen aldeko kanpaina egin zezaten.

Frans Timmermans Europako Batzordeko lehen lehendakariorde izan zen 2014tik 2023ra bitarte, Juncker Batzordean eta Von der Leyen Batzordean zegoelarik, eta Europako Itun Berdearen eta baserri-rik mahaira estrategiaren arduradun eta Klimaren Aldeko Ekintzako Politika Komisario izan zen.

Timmermansek, hain zuzen ere, landa-eremuaren aurkako eraso ekologisten sorta osoa onetsi zuen, txosten ofizial bati entzungor eginda, UPNk lehenago ere adierazi duen eran, txostenean adierazten baitzen haren neurrien ondorioz elikagai-ekoizpena murriztu egingen zela eta horrek prezio-igoera ekarriko zuela. Baina, orain, elementu berri bat sortu da Holandako prentsaren salaketarekin, jakinarazi baitute Europako bulego batek ustez funtsak bideratu dituela ingurumen-politikak babesteko, Bruselaren proposamen klimatikoaren aldeko presioa egiteko gezurren eta faltsukeria ideologikoen bidez.

Informazio horren arabera, erakunde horiek ez zutela finantziazioa jaso soilik Bruselaren plan berdeen alde kanpaina egiteko baldintzapean, eta, besteak beste, nekazaritzari eta jasangarritasunari buruzko eztabaidan eragiteko baldintzapean, eta horrek zalantzan jartzen du GKE ekologistek Europako proposamen klimatikoari ematen dieten babesaren egiazkotasuna.

De Telegraaf egunkariak dioenez, Europako Batzordeak baliabide publikoak baliatu izanen lituzke eztabaida politikoa eta soziala Timmermans holandarrak sustatutako politika berdeen onarpenerantz bideratzeko, nekazaritzako eta abel-

tzaintzako ekoizpen-sektoreari eraso eginez gezurren bidez, gizartearen landa-eremuaren aurka jarriz Europaren autosufizientziaren aurka egiteko xedez eta, beraz, kontsumitzailearentzat hain seguruak ez diren elikagaien sarrerari bidea emanez.

UPNk gardentasun osoa eskatzen du kontratu horiek burutzeko moduari buruz, eta egin dadila ikerketa bat horri buruz.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzea jakinaraz dezaten ea bazuten Batzordearen lan-metodo horien berri eta ea foru departamentu edo ministerioren batek ere horrelako kontratuak erabiltzen dituen lobby egiteko.

2. Espainiako Gobernua premiatzea aldeztu dezan EBko aurrekontu-kontrolako batzordearekin batera ikertzea azken bost urteetan ingurumenaren alorreko taldeei emandako subsidio-kontratuak eta ustezko lobby zerrendak, politikarien ize-

nak dituztenak, horiekin harremanetan jartzea komeni baita.

3. Nafarroako Parlamentua Nafarroako lehen sektoreari erasotzen dioten ingurumenaren aldeko metodo lobbyista horien aurka agertzen da.

4. Nafarroako Parlamentua elikagai-kontsumitzailearen alde agertzen da, eta elikagai-segurtasunaren kontra doazen metodo horien aurka.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernari eta Espainiako Gobernari eskatzen die stand by-an jar ditzan eta lehengoratu ditzan Europako Itun Berdeko, Baserritik mahaira estrategiako eta Klimaren Aldeko Ekintza politikako politika guztiak, ustezko ustelkeria-kasu horiek guztiak argitu arte.

Eskatzen da Gobernuak kontuak eman ditzan Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean.

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-25/MOC-00013. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak Elikadura Osasungarriaren Nafarroako Estrategia osatu dezan, populazioaren arriskuak desagerraraziko dituzten neurriak hartuta

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak Elikadura Osasungarriaren Nafarroako Estrategia osatu dezan, populazioaren arriskuak desagerraraziko dituzten neurriak hartuta.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Gainpisua eta obesitatea osasun-arazoa dira gaur egun mundu guztian. Nafarroan, 18 urtetik behetik adingabeen % 15,6k gainpisua du, eta % 7,7k, berriz, obesitatea. Hortaz, haur- eta gazte-populazioaren ia laurden batek du kondizio hori. Gehiegizko gorputz-gantzaren prebalentzia handia aldagai demografikoekin –hala nola gizonezko izatea eta adina–, aldagai hereditarioekin eta aldagai sozioekonomikoekin lotua dago –errenta txikiko populazioaren artean ematen da batez ere–. Biziestiloen aldaketek, dieta tradizional osasungarrikiko atxikimendurik ezak eta sedentarisismoaren

gorakadak ere azaltzen dute arazoak herrialde garatuetan izan duen goranzko bilakaera.

Hori horrela, arazoari aurre egiteko ezinbestekoa da gehiegizko gorputz-gantza duen populazioaren baldintzatzaile sozialei lotutako faktore askotarikoak lantzea. Hain zuzen ere, diru-sarrerei, enpleguari, elikagai osasungarrien eskuragarritasunari, jarduera fisikoa egiteko instalazioetarako sarbidea eta denbora izateari eta abarri dagokiez egoera behartsuagoak dituzten kolektiboek, eremuek eta auzoek osatzen duten populazio hori.

Kausa anitzekoa izanik, arazoa konplexua denez, nekazaritzako elikagaien, elikagai-merkatu-aratzearen, lanaren, gizartearen eta hezkuntzaren alorretako politikak ezartzea eskatzen baitu, orain arte aplikatutakoak ez bestelakoak ezarri ere, mozio honen bidez lortu nahi dugun xedea da, besterik gabe, haurren eta nerabeen artean elikagai ez-osasungarrien kontsumoa sustatzen duten publizitate-kanpainen gaineko kontrola sendotzea Nafarroan.

Ebidentzia zientifikoak agerian utzi duenez, lotura bat dago publizitatearen, haur eta nerabeek iragarritako produktuekiko duten jokabidearen (oroitzea, lehenestea, erostea) eta epe motzean produktu horien kontsumoa areagotzearen artean. Haur eta nerabeek osatutako populazioa bereziki zaugarria da publizitate-estrategiekiko eta elikagai eta edariekin fidelizatzeko estrategiekiko, eta beraz, babestu egin behar ditugu.

Haur eta nerabeei elikagai eta edari ez-osasungarrien publizitatea iristen zaie telebistaren edo online konektatutako gailu elektronikoen bidez, programa eta jolasen ikuskaldi-denborarekin lotutako inpaktu-mailarekin.

Osasunaren Mundu Erakundeak eta EBK herrialdeak premiatzen dituzte adingabeen babestu ditzaten elikagai ez-osasungarrien publizitatearen efektuetatik. Agerian geratu denez, ardura hori enpresekiko autoerregulazio-hitzarmenen (Estatuan, PAOS kodea) esku uztea ez da oso eragin-korra izan.

Estatu-mailan haurrei zuzendutako elikagai-publizitatea erregulatzeko ahaleginak egin badira ere zenbaitetan, produktu ez-osasungarrien iragarkiak ugariak dira oraindik ere komunikabideetan eta adingabeen online ingurunean.

Espainiako Pediatria Elkartearen Nutrizioaren eta Amagandiko Edoskitzearen Batzordea bera

ere ados dago haur eta nerabeei zuzendutako elikagai ez-osasungarrien publizitatea mugatzeko beharrarekin, komunikabide eta marketin-estrategia guztiak barnean hartuta.

Horregatik, osasunean eragin kaltegarriak dituelako –besteak beste, obesitatearen gorakada handia–, geure buruari honako hau galdetzeko unea izanen da agian: Ez al litzateke bidezkoa izanen elikagai-mota horren erregulazio zorrotzago bat ezartzea?

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du:

1. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak osatu dezan egungo “Elikadura Osasungarriaren Nafarroako Estrategia”, nutrizioari eta bizitza aktiboa eta osasungarria izateko ohiturei buruzko heziketa ardatz duena, populazioaren arriskuak desagerraraztera bideratutako neurriekin: haurrek elikagai ultraprozesatuak –gantz aseetan eta/edo azukre sinpleetan aberatsak direnak–, bai eta edari energetikoak eta/edo edari azukretsuak eskuratzeko dituzten aukerak mugatuz edo debekatuz (Galizia). Orobat, haurrei eta nerabeei zuzendutako produktu horien merkaturatzerako oinarritzko nutrizio-irizpideak ezarri. Eta elikagai eta edarien nutrizio-etiketatzeari, propietate osasungarrien adierazpenei eta sustapen komertzialari buruzko arauak sendotuz.

2. Elikadura-ingurune osasungarriak bermatu ditzan ikastetxeen inguruan, zonifikazio-politikak ezarri, oso osasungarriak ez diren jakien saltokien presentzia mugatzeko eskoletatik, eskola-ibilbideetatik eta haur-parkeetatik gertu, Nafarroako Dietista-nutrizionisten Elkargo Ofizialak gomendatzen duenari jarraituz; orobat, produktu horiek zergapetzeko politika fiskal bat ere ezarri.

3. Espainiar Estatuko Gobernuari eska diezaion garatu dezala lege-mailako arau bat haurrei zuzendutako elikagai eta edarien publizitatea arautuko duena eta haurren kolektiboa babestuko duena elikagai ultraprozesatu eta edari energetiko eta/edo azukretsu horietatik.

Iruñean, 2025eko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

**11-25/MOC-00014. Mozioa, zeinaren bidez Diputatuen Kongresua premia-
tzen baita Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua alda dezan
2011ko irailaren 7ko erreforma zuzentzeko eta zorraren nahiz horren
interesaren ordainketari dagokionez berriro izan daitezen goi balioak
askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa, zeinek
Espainiako estatuaren zuzenbidearen izaera sozial eta demokratikoa
osatzen baitute**

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Diputatuen Kongresua premiaitzen baita Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua alda dezan 2011ko irailaren 7ko erreforma zuzentzeko eta zorraren nahiz horren interesaren ordainketari dagokionez berriro izan daitezen goi balioak askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa, zeinek Espainiako estatuaren zuzenbidearen izaera sozial eta demokratikoaosatzen baitute.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Miguel Garrido Solak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Eskatzen dugu mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Lehendakari-tza eta Berdintasun Batzordean egin dadila.

Zioen azalpena

2011ko irailaren 7an, Diputatuen Kongresuak konstituzio-erreforma bat onetsi zuen PSOEren eta PPren talde parlamentarioen akordio bati esker (PPren taldean UPN ere zegoen). Erreforma horren bidez, erabateko lehentasuna eman zitzaion zor publikoaren kapitala eta interesak ordaintzeari; hortaz, Estatuaren hartzekodunen

interesaren mende jarri ziren Estatuaren zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoaren izaera eta balio gorenak, Konstituzioaren 1. artikulua 1. aparta-tuan1 ezarriak.

Erreforma horrek orobat ezarri zuen aurrekon-tu-egonkortasun neoliberalak, zeinak bilatzen baitu, ekonomia pribaturako finantza-kontrola desarautu bidenabar, arautu eta are konstituzionalizatzea administrazio publikoen zerga- nahiz finantza-politikarako mugak.

Geroago, 2012ko apirilaren 30ean, Diputatuen Kongresuak Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa onetsi zuen; oraingoan, eskuinaren botoekin soilik (PP, UPN, CIU, UPyD eta Foro Asturias). 135. artikulua jada aurreikus-ten zuen lege hori, erreforma horretan ezarritako printzipioak garatzeko tresna gisa, baina Alderdi Popularrak erabaki zuen koska bat estutzeko baliatzea legea eta gastu-araua gehitzea aurre-kontu-egonkortasunaren betebeharrari. Politika publiko berriak bultzatzeko ahalmena mugatzea da gastu-arauaren helburu nagusia, administrazio publiko guztiei mugatzea hain zuzen ere, autono-mia-erkidegoen eta toki-entitateen finantza-autonomia urratuta hartara, eta eraso zuzena eginda gure erkidegoaren autogobernuari.

Horregatik guztiagatik, eta askatasuna, justizia, berdintasuna eta pluralismo politikoa ordenamendu juridikoaren balio goren modura berreskuratzearen zorraren interesak eta kapitala ordaintzearen gaine-tik, gure foru-erkidegoaren autogobernua aldeztear-ren eta ideologia neoliberalaren juridifikazioari aurre egitearren, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Diputatuen Kongresua premiaitzen du Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua alda dezan 2011ko irailaren 7ko erreforma zuzentzeko eta zorraren nahiz horren interesaren ordainketari dagokionez berriro izan dai-tezen goi balioak askatasuna, justizia, berdintasu-na eta pluralismo politikoa, zeinek Espainiako

estatuaren zuzenbidearen izaera sozial eta demokratikoa osatzen baitute.

– Nafarroako Parlamentuak Diputatuen Kongresua prematzen du 2/2012 Lege Organikoa indargabetu dezan, autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen finantza-autonomia eta gure foru-erkidegoaren autogobernua errespetatuz eta administrazio publikoei politika publikoak bultzatzeko ahalmena mugatzen dien gastu-araua kenduz ordenamendu juridikotik.

Iruñean, 2025eko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

1 Espainia zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko gisa eratzen da, bere ordenamendu juridikoaren balio gorentzat hartzen dituelarik askatasuna, justizia, berdintasuna eta pluralismo politikoa.

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00051. Galdera, tutoretzapeko zentroetan dagoen sei urtetik beheitiko haur-kopuruari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, tutoretzapeko zentroetan dagoen sei urtetik beheitiko haur-kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaioten:

6 urtetik beheitiko zenbat ume dago gaur egun tutoretzapeko zentro batean?

Iruñean, 2025eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-25/PES-00052. Galdera, itunpeko irakaskuntzaren sektorearekin 2024-2026 aldirako sinatutako akordioari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, itunpeko irakaskuntzaren sektorearekin 2024-2026 aldirako sinatutako akordioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Eneka Maiz Ulaiarrek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Iaz, 2024-2026 aldirako akordio bat sinatu zen osotara edo hein batean funts publikoekin aritzen diren irakaskuntza pribatuko enpresen VII. Hitzarmen Kolektiboak ukitutako irakaskuntza itunduaren sektorearekin eta, halaber, Nafarroako ikastolekin.

Akordioari buruzko galderak

ERREFERENTZIA:

XII. HAMABIGARRENA.- AKORDIO HONEN BERMEAK ETA HOBEKUNTZA-AUKERAK

Akordio honen aplikazioa garatzeko, ezartzeko eta zaintzeko, Jarraipen Batzorde bat eratzen da berau sinatzen denetik bertatik; sinatzaileek osatuko dute batzordea, eta urtean bi aldiz bilduko da gutxienez.

Era berean, ikasturteko hiruhileko bakoitzean informazio-bilera bat egingen da Hezkuntza Departamentuaren, patronalen eta erakunde sindikal sinatzaileen artean, irakaskuntza pribatu itunduaren sektorearen bilakaera aztertzeko.

1. Egin al da bilerarik?

2. Zer gai jorratu da? Zer konpromiso hartu dira?

ERREFERENTZIA:

BOSGARRENA.- ERRETIRO PARTZIAL AURRERATUA / ERRELEBO-KONTRATUA

Erretiro partzialari eta errelebo-kontratuari buruzko indarreko araudiak bere horretan dirauen artean, Hezkuntza Departamentuak lanaldi partzialeko kontratu bat onartuko du, eta bere gain hartuko du Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari egin beharreko kotizazioaren kostua, zeina izanen baita lanaldiaren eta lansariaren murrizketa bat kontratatutako irakasleentzat, ordainketa eskuordetuan sarturik, une bakoitzean indarrean dagoen legediari jarraikiz erretiro partzial aurreratuari heldu nahi badiote; aipatu lanaldiari dagozkion ordainsariez gain, gehigarri bat ordainduko zaie, zeinak bermatuko baitu, Gizarte Segurantzatik jasotzen dutenari gehituta, guztira jasoko dutena txikiagoa ez izatea erretiro partzial aurreratu hartzeko duen urtearen aurreko urteko irailaren 1ean ordainketa eskuordetuan izanen luketen lanaldiarekin legokiokeena baino. Denbora horretan zehar, ez zaio ordainduko beste zuzendaritza-osagarririk edo koordinazio didaktikorik erretiro osoa hartu arte.

Akordio honen indarraldian zehar gertatuz gero arau-aldaketak, ondorio dutenak Hezkuntza Departamentuarentzat kostua areagotzea, edo erretiro partzial aurreratu hartzeko eta/edo errelebo-kontratu sinatzeko baldintzen aldaketa, alderdiek akordio bat erdietsi beharko dute honako Akordio hau egoera berrietara egokitzeke, Oinarri-akordioan aipatzen den aurrekontu-erabilgarritasuna errespetatuz betiere.

3. Abenduaren 23ko 11/2024 Dekretuak zer eragin izanen du errelebo-kontraturako eskubidea duten pertsonen errelebo-kontratu bermatzeari begira?

ERREFERENTZIA:

ZORTZIGARRENA.- PRESTAKUNTZA-ESPARRUA

8.1. Irakasleen prestakuntza sustatuko du: Departamentuak Irakasleen Prestakuntza Planaren esparruan antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzen ahalko dute irakasleek, irakaskuntza publikoko irakasleen baldintza beretan. Orobat, laguntza indibidualak eskatzen ahalko dituzte eta

euskara ikasteko eta hizkuntza-hobekuntzarako ikastaro hedagarrietan parte hartu, plazak egonez gero betiere.

4. Aplikatzen ari delako ziurtasunik ba al dago? Irakasleak zenbateraino ari dira parte hartzen prestakuntza-ikastaroetan?

ERREFERENTZIA:

XI.- HAMAIKAGARRENA.- IRAKASLEEI LAN-POSTU BERRIAK EMATEA

Irakasleak sobera gelditzen badira Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta oinarrizko mailako edo erdi- edo goi-mailako Prestakuntza Zikloetan

unitate itunduen kopurua murriztearen ondorioz, haiek birbanatzeko edo haiei beste lanpostu bat emateko erraztasunak emanen dira, Akordio honen I. eranskinean zehaztutako moduan. Ez dira sartuko beren jarduera modu mailakatuan, pixkanakakoan, bat-batekoan edo ustekabean beren jarduera gelditu duten zentroak.

5. Aplikatu al da akordioa? Birkokatzerik izan al da eta nola egin dira prozesuak?

6. Zer aurreikuspen darabilzue 2025-2026 ikasturterako?

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/PES-00053. Galdera, Nafarroako Gobernu Irekiaren atarian euskara zuzen erabiltzeari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernu Irekiaren atarian euskara zuzen erabiltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.


Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio galdera honi idatziz erantzun diezaion.

Berriki Hizkuntz Eskubideen Behatokiko bulegotik ekarpen bat egin dute Nafarroako Gobernu Irekia gunean. Jasotako "euskarazko" erantzuna honako hau izan da:



Zergatik eman da Nafarroako Gobernu Irekia gunetik ulergaitza den erantzun bat?

Hartu al dira neurriak erantzun onartezin hori zuzendu eta euskara zuzenean erantzuteko? Zein?

Zein baliabide erabiltzen ditu Nafarroako Gobernu Irekia gunek euskararen erabilera zuzena bermatzeko?

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/PES-00054. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Ospitalez kanpoko Larrialdi Zerbitzuko anbulantzietako medikuek eta erizainek arrisku-osagarria jasotzeari uzteko arrazoiei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Ospitalez kanpoko Larrialdi Zerbitzuko anbulantzietako medikuek eta erizainek arrisku-osagarria jasotzeari uzteko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Ospitalez kanpoko Larrialdi Zerbitzuko anbulantzietako medikuek eta erizainek zergatik utzi diote arrisku-osagarria jasotzeari orain dela zenbait hilabete?

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-25/PES-00055. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak biriketako minbizia hautemateko Cassandra proiektuan parte hartzeari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak biriketako minbizia hautemateko Cassandra proiektuan parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak zer urrats egin du 2023tik hona Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak biriketako minbizia hautemateko Cassandra proiektuan parte hartzeko?

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-25/PES-00056. Galdera, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean jasotako zenbait jarduketa betetzeko epeari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echeagaray jaunak egindako galdera, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean jasotako zenbait jarduketa betetzeko epeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echeagaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, Europako NG SEM funtsei buruzko honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1. Zer epetan aurreikusten da beteko direla MRR funtsekin finantzatu eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean jasotzen diren honako jarduketa hauek?

IDa Kudeatze-jarduketa	Informazio Sistemako Azpiproiektua (CoFFEE)	Izena	ESLEITUTAKO FINANTZAKETA MRR 2020-2026	2020tik 2026ra bitarteko baimenak	2020tik 2026ra bitarteko xedapenak edo konpromisoak	2020tik 2024ra bitarteko betebeharrak
ID053	Gauzatzeke	UNICO programa-Eraikinak (telekomunikazio-azpiegiturak hobetzeko ekintzak)	930.600	0	0	0
ID124	C18.I06.P02.S09	Data Lake sanitarioa	759.553	0	0	0
ID126	C14.I01.P06.S08	ACD Nafarroa Destinoak 2022 ACD Nafarroa eta bere paisaia enogastronomikoak	2.380.000	0	0	0
ID135	Gauzatzeke	Turismo-enpresen energia-efizientziako eta ekonomia zirkularreko proiektuen 2023ko finantzaketa	2.607.540	0	0	0
ID139	Gauzatzeke	Turismoaren jasangarritasun sozialerako planak	99.998	0	0	0
ID140	C19.I03.P11.S04	Turismoaren sektorerako gaitasun digitalaren plana	537.838	0	0	0
ID141	Gauzatzeke	Uraren zikloaren digitalizazioko ESEPEaren bigarren banaketa	1.846.200	0	0	0
ID143	Gauzatzeke	Zorro genomikoaren katalogoa handitzea (GenES)	468.176	0	0	0
ID145	C11.I03.P16.S04	Arreta Digital Pertsonalizatua (ADP)	5.301.197	6.353.949		
ID146	C26.I02.P03.S01	Eskualde despopulatueta jarduera fisikoa eta osasuna sustatzea PAFER sarea	134.094	0	0	0
ID147	C26.I01.P01.S11	Kirolaren sektorea digitalizatzeko plana	147.007			
ID148	C18.I05.P10.S11	Zorro genomikoaren katalogoa handitzea informazio sistema (SiGenES)	704.154	852.027		
ID149	C18.I04.P05.S09	Gaixotasun arraroak eta ELA dauzkaten pazienteen osasun-laguntza hobetzeko inbertsioak	692.086	54.450		
ID151	C26.I02.P01.S38	Guelbenzu jolaslekua (Iruña) egokitzea	604.586	0	0	0
ID152	C12.I03.P02.S07	Hondakin-kudeaketarako digitalizazio-tresnak garatzea	1.628.665	0	0	0
ID153	C12.I03.P05.S05	Iruñerriko Ingurumen Zentroa Hondakinei buruzko araudia ezartzea	11.593.80	0	0	0

2.-ID119 jarduketak zergatik jarraitzen du finantzaketa esleitu gabe? Azkenik eginen al da?

ID119	C04.I03.P03.S06	Ekosistemak lehengoratzeko eta azpiegitura berderako (13) jarduketak (9) Beste jarduketa osagarri batzuk	0	0	0	0
-------	-----------------	--	---	---	---	---

3.- ID010 jarduketa egiteko epea beteko al da?

Zer epetan uste da lizitatuko eta eginen dela "Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentroa"?

ID010	02.I05.P01.S15	PIREP - Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentroa	1.625.213	0	0	0
-------	----------------	---	-----------	---	---	---

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-25/PES-00057. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko langileria-planari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko langileria-planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio galdera hauei idatziz erantzun diezaien.

1/2024 Legeak, ekainaren 7koak, goi-mailako arte-irakaskuntzak arautzen ditu eta arte irakaskuntza profesionalen antolaketa eta baliokidetzak ezartzen ditu. 52. Artikuluan sorkuntzaren, interpretazioaren, gauzatzearen edo kontserbazioaren eta zaharberritzearen ikerketa-jarduera eta ariketa artistikoa ezagutzea jasotzen da. Artikulu horren lehen puntuan esaten da ikastetxe publikoetako irakasleen ikerketa-jarduera eta -dedikazioa bultzatuko dela, bai eta sorkuntzaren eta interpretazioaren ikerketan eta jarduera artistikoan egiten duten ekarpena ere.

Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko irakasleei dagokienez:

– Zer neurri hartzen ari dira gaur egun Hezkuntza Departamentua irakasleen ikerketa jarduera bultzatzeko eta euren sorkuntzari eta jarduera artistikoari bidea emateko?

– Nola dago arautua irakasleen ordutegi-malgutasuna, euren sorkuntzarekin, jarduera artistikoarekin eta ikerketa-lanarekin bateragarria izan dadin?

– Nola dago arautua irakasleek Erasmus+ programan parte har dezaten, ikasleek klase orduak galdu gabe?

– Zein da Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko irakasleen formazio plana?

– Zein da irakasle horiek euskalduntzeko plana? Non dago jaso?

– Nola aurreikusten da garatzea 1/2024 Legea Nafarroan? Nola bermatuko da inplikaturako zentzuen parte hartzea prozesu horretan?

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/PES-00058. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioari eta Hezkuntza Departamentuko ikuskaritzari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioari eta Hezkuntza Departamentuko ikuskaritzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio galdera honi idatziz erantzun diezaion.

1/2024 Legeak, ekainaren 7koak, goi-mailako arte-irakaskuntzak arautzen ditu eta arte-irakaskuntza profesionalen antolaketa eta baliokidetzak ezartzen ditu. 60. artikuluan Hezkuntzako ikuskaritza arautzen da, eta esaten du hezkuntza-administrazioek bermatuko dute ikuskapen-zerbitzuak goi-mailako arte-irakaskuntzen eremura egokitzen direla eta prestakuntza jasotzen dutela. Jakina da arte-ikasketek berariazko ezaugarriak dituztela, eta horien ikuskapena egiten duten zerbitzu eta profesionalak ere berariazko prestakuntza behar dutela.

Zer neurri hartzen ari dira gaur egun Hezkuntza Departamentuaren ikuskapen-zerbitzuek goi-mailako arte-irakaskuntzen eremura egokitu eta prestakuntza jaso dezaten?

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/PES-00059. Galdera, Nasuvinsaren ekimenez Burlatan abiarazitako etxegabetze-prozedurei buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, NASUVINSaren ekimenez Burlatan abiarazitako etxegabetze-prozedurei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako

eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Burlatan une honetan ba al da abian eta irekita edo prozesuan inolako etxegabetze-espediterik, bere edozein fasetan, Nasuvinsak premiatuta?

Hala baldin bada:

Nasuvinsak zer planteatu die pisu horretan/horietan bizi den/diren pertsonari/pertsonen bitartekaritza-prozeduran?

Zertan d(ir)a Burlatan abiarazitako etxegabetze-prozedura(k)?

Nasuvinsa aztertzen ari al da edo aurreikusten al du prozedura horri/horiei konponbide adosturen bat ematea?

Hala baldin bada:

Zer betekizun, inguruabar edo baldintza bete beharko lirakeke Nasuvinsa prest ager dadin kasu bakoitzean akordio batera ailegatzeko?

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-25/ACOP-00001. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, zeinaren bidez salatu egiten baitu Estatu Batuetako Donald Trump presidentek Gazarentzat iragarritako plana

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehena:

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak salatzen du Estatu Batuetako presidentea Donald Trumpek Gazarentzat iragarri duen plana, uste baitu zinezko garbiketa etniko bat dela eta nazioarteko zuzenbideari eraso egiten diola; izan ere, biztanleria bat bere herritik kanporatzea Genevako Laugarren Konbentzioaren eta Erromako Estatutuen urraketa larria da.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak errefusatzeko dituen Trumpek Nazioarteko Zigor Auzitegiko

zuzenbait kideri Netanyahuaren atxilotze-aginduagatik ezarritako zigorrak.

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak bere konpromisoa agertzen du lanean jarraitzeko eta palestinar herriari ahotsa emateko, harik eta apartheid honekin amaitu eta palestinar herriak azkenik bakean, errespetatua eta nazioarteko komunitateak aitortua den estatu bideragarri batean bizitzeko aukera izan arte.

Bigarrena:

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/ELCO-00001. Nafar Komunitateen Kontseiluan Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen bi ordezkari eta horien ordezkokoak izendatzea

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko otsailaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“1. Nafar Komunitateen Kontseiluan Nafarroako Parlamentuak izendatu behar dituen bi ordezkari eta horien ordezkokoak izendatzea:

Titularra: Ander Larunbe Anderson jauna

Ordezkoa: Aranzazu Izurdiaga Osinaga andrea

Titularra: Alicia Alemán Arrastio andrea

Ordezkoa: Mikel Asiain Torres jauna

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/ELCR-00002. Talde parlamentarioek ordezkariak izendatzea Nafarroa Markaren Mahairako

2025eko urtarrilaren 27an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak, 2024ko abenduaren 27ko Erabakiaren bidez, Nafarroa Markaren Mahaia eratu zuen, zeina Nafarroako Gobernuko zenbait ordezkari eta talde parlamentario bakoitzeko ordezkari batek osatuko baitute. Erabaki horrekin eta Mahai honen 2025eko urtarrilaren 13ko Erabakiarekin bat etorriz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Talde parlamentarioen ordezkari izendatzea Nafarroa Markaren Mahairako honako pertsona hauek:

– Cristina López Mañero andrea, titularra, eta José Javier Esparza Abaurrea jauna, ordezkoa, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak proposatuta.

– Tirso Calvo Zardoya jauna, titularra, eta Ainhoa Unzu Gárate andrea, ordezkoa, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak proposatuta.

– Irati Jiménez Aragón andrea, titularra, eta Adolfo Araiz Flamarique jauna, ordezkoa, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak proposatuta.

– Blanca Regúlez Álvarez andrea, titularra, eta Itxaso Soto Díaz de Cerio andrea, ordezkoa, Geroa Bai talde parlamentarioak proposatuta.

– Eva María Gorri Gil andrea, titularra, eta Marcos Navascués Chivite jauna, ordezkoa, Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak proposatuta.

– Daniel López Córdoba jauna, titularra, eta Miguel Garrido Sola jauna, ordezkoa, Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak proposatuta.

– Emilio Jiménez Román jauna, titularra, eta M.^a Teresa Nosti Izquierdo andrea, ordezkoa, Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteak proposatuta.

2. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari, interesdunei eta talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

